

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatzen dutena betetze aldera, oro har jakinarazten da Udalbatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salari proposatuko diola bake epaile titularra eta ordezko bake epailea izendatzea 4 urteko aldirako.

Botere Judizialaren Lege Organikoak eta 3/1995 Arautegiak ezarritakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- Adinaz nagusia izatea.
- Espainiako naziotasuna izatea.
- Zuiako udalerrian erroldatuta egotea.

– Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389tik 397ra arteko artikulua eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Interesdunek udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera; horretarako, hamabost egun baliouduneko epea izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta eskaerarekin batera agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia edo haren baliokidea.
2. Zigor aurrekarien ziurtagiria.
3. Honako hauen gaineko Adierazpena:
 - a) Ez dela doluzko delituagatik kondenatua izan edo, hala badagokio, birgaitzea lortu duela.
 - b) Ez dagoela prozesaturik edo erruztaturik dolozko delituagatik, edo, hala badagokio, auzi-petua izan den kausan absoluzioa edo artxibatze autoa eman zaiola.
 - c) Eskubide zibil guztien jabe dela.
 - d) Ez dagoela fisiko eta psikikoki ezgaituta epaile eginkizunetarako.
 - e) Ez dagoela ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan aurreikusitako en arteko baten eraginpean, esan nahi da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2022ko azaroaren 11

Alkatea

UNAI GUTIERREZ URKIZA